

KOLOREZTATU UME JOLASAK BERRIZEN

(Berrizen jasotako jolasak)




Klikatu eta gozatu

Audioak: herriondarea.eus (Berriz)
www.berriz.eus

UME TXIKIENTZAKO KANTAK

Esku eta atzamarrakaz egitekoak

Honek egurra batu,
honek ekarri,
honek su egin,
honek prestau,
eta honek dana jan.



Txaloak egitekoak

Txalopin txalo, txalo
ta txalo, katua mizpi-
la ganean dago.
Badago bego, bego
badago, zapatatxu
barriari begira dago.





Arre-arreka egitekoak

Arre-arre mandako,
bihar Tolosarako,
etzi Panplonarako,
handik zer ekarriko?
Zapata ta gerriko

Bat eta bi, hiru ta lau,
Txominek hankea
falta dau,
horma zuloan
topau dau,
sirriki-sirriki atera dau.

Arre arre, iso iso,
asto benenua,
okerreko bidetatik
nora ete doa?
Lalara, larala,
laralaralara

Antonio, Polonio,
Paskual Bizente,
antxinako nobiari
aurrean presente.
Lalara, larala,
laralaralara (bis).



Juanita Bastida:
<https://youtu.be/irlzQGmr77Q>



Ahotsak Ikasgelan

Abarketak urratuta,
zapatarik ez,
Bermeon gelditu nintzan
oineko minez.
Lalara, larala, laralaralara (bis)



Kulunka egitekoak

Din-dan nor hil da?
 Peru zapataria.
 Zer egin du, pekatu,
 auzoko txakurra
 urkatu.
 Hori ez da pekatu.
 Ostiralean koipatu,
 hori izan da pekatu!



zozketa egitekoak

Don-don Beleron,
 Belerongo herrian,
 zazpi gizon dantzan,
 zu mozkorra, ni
 mozkorra, nahi
 dabena kanpora!

~~~~~

Isabela, Manuela,  
 Don don kikilibiron.  
 Katalina beinte,  
 beinte bolante,  
 txirriki piton, Martin  
 zapaton, kainabera  
 tronpeta, lau zirikon.



Juanita Bastida:  
<https://youtu.be/tLCDzNrXgjl>



Ahotsak Ikasgelan





## AHOZKO IPUINAK

### "Martintxo eta jentilak" (Juanita Bastida)

"Aitita-amamek kontetan deuskuenaren arabera, jentilei esker lortu genduan garia euskaldunok. Holantxe dino ipuin honek: Martintxo mendian bizi zan eta txara artean ezkutauta jentilak bijiletan ibiltzen zan. Jentilek garia eukien, eta erein eta landuta ostean, gari-joteak egiten ebezan. Behinola baten, horretan ebilzala, Martintxo, aitaren abarka handi batzuk jantzi eta eurengana joan zan. Jentilak Martintxo han egoala konturatu ziranean atoan bialdu eben handik kanpora, baina ordurako Martintxoren abarkak gariz beteta egozan. Auzora itzuli zanean eurak be garia erein eben"



Juanita Bastida:

<http://herriondarea.eus/eu/ficha/martintxo-eta-jentilak>



### Anbotoko Mari



Juanita Bastida:


<http://herriondarea.eus/eu/ficha/anbotoko-mari>



## JOKOAK


### Arto txorokilekin dorreak

Artoaren txorokilekin launan-launan dorrea egiten eben. Dorreak, edozein gauzagaz egiten ebezan.



### Txapetara

Txaparik ez eta harriekin jolasten zan aspaldian. Bide bat pintatu eta harri zein txapakin bidea jarraitu behar zan; marra zapaldu barik. Txapak gero agertu ziren eta ondoren, txirrindulari edo futbol jokalarik aurpegiaren txapa bildumak sortu ziren.



### Potxoloka


Kanika-jokoa.. Lurrean potxolua (zulua) egin eta ia bertan zeinek kanika sartu. Antxiña kanikekin ez eze, intxaurrekin be jokatzen zan. Eta hara zulora gehien botatzen ebanak irabazi.





## Txorromorroka

Talde biren edo gehiagoren arteko jokoa izaten zan. Gelditzen zirenak, azpian ipintzen ziren, makurtuta, ilaran; besteak gainera salto egiten eben. Lehenengo salto egiten ebanak, atzamar bat ipintzen eutsan lepoan azpikoari eta azpikoak zein atzamar zan igarri behar eban eta holan esaten zan: txorro (atzamar lodia), morro (erakuslea), piko (luzea), taillo (nagia), ke (txikia). Txorro-morro-piko-tallo-ke. Zein da? eta behean dagoenak asmatu behar eban.







## Sokasaltoan soka eragin eta kantatu

“Aita, ama, zenbat gozoki jango  
dodaz?

Txikia naz eta ez dakit:

1,2,3,4...

Aita, ama, zenbat urtekin  
ezkonduko naz?

Txikia naiz eta ez dakit: 1,2,3,4...”.

“Kantauriko itsasoan,  
olatuak goraka  
Itsasontzi bat irten da  
olatuen artean.

Hemendik hara eta  
handik hona (bis)”

Nik dauzkat artaziak,  
zabaldu eta itxi.

Lurra ukitu, zerua ukitu,

Belauniko jarri eta irten kanpora


Peio txoferrak lere,  
galdetu eustan lere,  
ea nahi neban lere,  
kotxez ibili lere.

Nik grazia handiaz lere,  
erantzun neutsan lere,

Oinez ibili lere,  
nahiago nebala  
lere, lere, lere, lere

Saltoka saltoka nabil ni gustura  
Salto eta salto bat sartu arte.

Sartu dadila  
“ X” eta biok  
alkarregaz,  
Salto et salto,  
bat urten arte.  
Emon eizu  
buelta eta  
urten zaitetz.





## Arretxiko. Arreburritxikoka

Arretxiko hartu edo arretxikoan eroan. Batak bestea lepoan hartu eta eroan edo lasterketak egin bikoteka.

## Aurkitu 5 ezberdintasun



## KROMOKA

Ahuspez (ahozpez) jarri kromo guztiak. Eskuaren ahurrarekin emon eta gora begira jartzen direnak zuretzat. Kromoak, norberak egindakoak izan daitezke.



## Andrakilak (panpinak)

Andrakilak-eta, jantziak be norberak egindakoak. Trapuari forma emon, eta artilea edo kotoia sartu mangetan eta buruan. Andrakilak trapuzkoak edo kartoizkoak izaten ziran eta barruan zerrina. Naboburua be erabiltzen zan, trapu bategaz batuta.





## Abasoloka/Abosoloka/tortolosestan

Lau abosolo (taba) eta pilota txiki batekin jolasten zan. Abosolo/tortolosak bildots, arkume, ahari hanketako hazurrak dira. Eta lau alderdi dauzka: lepotara, zulotara, belarritara, burutara. Izenak be herriz herri aldatu egiten ziren.

Oso antzinatik jolasten da tortolosekin, munduko toki askotan. Antzinako Grezian eta Erroman, esate baterako. Grezian astragalo deitzen eutsien eta etorkizuna iragartzeko ere erabiltzen ebezan.

Abosoloka/tortolosestan jolasteko, pilotatxo bat edo kanika bat erabiltzen da. Pilotatxoa gora bota eta barrero hartu behar da. Pilota airean dagoen bitartean, tortolosak hartu behar dira banan-banan. Eta beste aukera bat da alde batera dagozan tortolosa/abosoloei buelta emotea (hau gatzagoa da).



Mari Tere Alberdi, Antonio Barajuen:  
<http://herriondarea.eus/eu/ficha/abasoloka>







## HARRI HARRIKA/ZELEMINAN/HARRI GORRIKE

Zer behar da? Klariona eta harritxo bat.

Klarionarekin laukiak marraztu lurrean. Lauki bakoitzari zenbaki bat jarri. Harri bat jaurti, eta marra jakin batetik gertuen izten dauena izango da jolasten lehenengoa. Hanka bakarrarekin egin beharreko jolasa da. Banaka egiten da, txandaka. Lehenengo jokalaria harritxoa lehenengo laukitxora botako dau. Hanka baten gainean taulaz taula saltoka joango da jokalaria, (gurutzea sortzen dan tokian izan ezik: han hanka bakoitza zenbaki batean jarriko dau) eta marrarik zapaldu barik. Bueltako bidea egitean, bigarren laukian dagoenean, makurtu eta harria hartuko dau 1go laukitik, hanka bakarrarekin beti be. Bide guztia ondo eginez gero, jokalaria harria bigarren laukira botatzeko aukera izango dau. Zenbaki guztiekin egin beharko dau gauza bera. . Zenbaki danak egiten dauezenak irabaziko dau.



Mari Tere Alberdi, Antonio Barajuen:  
<https://youtu.be/7CWqeeCuphl>







## Tronpak

Tronpa edo xiba. Tronpa bota eta lurrean bueltaka ibiltzea ez zan lorpen makala. Gehiago saiatzen zirenak, eskuan be hartzen eben. Egurrezkoak ziren tronpak eta burnizko muturra zeukaten; eta bueltan-bueltan soka. Geroago, yo-yoekin be ibili izan gara. Botoiekin egiten ziren. Bi botoi handi alkarrekin josi eta, hariarekin inguratzen genduzan. Baldarragoak ziren, motelagoak.







## Bolo-jokoa

Bolatokiaren mutur batean 9 bolo (hilara bakoitzean hiru) ipintzen dira, beste muturrean barriz bolaria jarriko da eta boloak lurrera botatzen saiatuko da. Boloak jaurtitzean, atzamarrak boloetako zuloetan sartuko dira. (Boloak, plastikozko botila, esne poto edo egurrez egin zeinkez etxean).


Berrizen, orain be bolotan egiten da San Pedro eta Santa Isabel jaixetan eta hainbat auzotan.



Herminia Lazpita eta Klaudio Berrizbeitia: <https://youtu.be/N6XoTcFLASY>

Jose Mari Maiztegi: <https://youtu.be/NOJMSIOISx4>

Rikardo Lejarreta: [https://youtu.be/Vg\\_NSLfwF80](https://youtu.be/Vg_NSLfwF80)





## Txirikillan

Palo handi bat (mazetie) eta palo txiki bat (txirikilla) baina punta biak zorroztuta eta palo/makila handiarekin jotzen zenduan puntan eta salto egiten eban txirikillak.

Makila luzearekin (mazetie) makila txikia (txirikila) jotzen da, puntan, eta, txirikila airean dagoenean, berriz jotzen joko palo handiarekin. Txirikila hegan ateratzen da. Txirikila ahalik eta urrutien bidaltzea da helburua.



Mari Tere Alberdi, Antonio Barajuen:  
<https://youtu.be/1aRWzfv5CEE>



**GALDETU AITA-AMARI,  
AITITE-AMAMARI ZERTARA  
JOLASTEN EBEN UMETAN  
ETA MARRAZTU HURRENGO  
ORRIETAN.**





## **Marrazteko orriak**